

noticias de Gipuzkoa

Gipuzkoa Reala Cultura Actualidad Opinión Deportes Economía Vivir ON Participación Servicios
Política **Sociedad** Sucesos Unión Europea Mundo Albisteak Deusto Positivos en coronavirus

ÚLTIMA HORA | Ayuso dimite y convocará elecciones anticipadas en Madrid

Noticias de Gipuzkoa » Actualidad » Sociedad

[Arantza Del Pozo](#)

VICOMTECH ENPRESAREN AHOTS ETA HIZKUNTZA TEKNOLOGIEN SAILEKO ZUZENDARIA

"Erraldoi teknologikoen zerbitzuen eskaintzan euskara txertatzea merkatu erronka bat da"

ANE ARALUZEAREN ELKARRIZKETA RUBEN PLAZAREN ARGAZKIA | 03.11.2020 | 01:16



"Erraldoi teknologikoen zerbitzuen eskaintzan euskara txertatzea merkatu erronka bat da"

DONOSTIA – "Gure inguruan gailu pila bat daukagu eta egunerokoan pentsatzen duguna baino gehiago erabiltzen ditugu", azaleratzen du Arantza del Pozok, ahots eta hizkuntza




Sociedad



El coronavirus está en expansión en Gipuzkoa

La tasa de reproducción sube por encima de 1 | Varios municipios de Goierri se sitúan con tasas de...



Comienza la vacunación de 147 bomberos forales de Gipuzkoa



Ibarra reclama un cribado para atajar la incidencia del coronavirus

Los vecinos de Legorreta irán en masa al cribado

teknologien adituak. Bere esanetan, hamar edo hamabost urtetan "elkarlan naturalagoa" izango dugu tresna hauekin. Del Pozok gero eta hurbilago ikusten du Siri edo Google Assistant euskalduna. Hala ere, gailuak elikatzeko euskarazko datuak sortzen jarraitu behar dela dio, adimen artifiziala dagoen informaziotik elikatzen baita.

Zein da euskararen egoera ahots eta hizkuntza teknologiei dagokienez?

–Euskarak dituen hiztun kopurua kontuan izanik nahiko ondo dago. Baina oraindik ez da teknologia alor askotan erabiltzen. Horrek islatzen du euskararen erabilera: ikastetxeetan, administrazio publikoan, komunikabideetan... Beste esparru espezifikoeetan, adibidez, osasungintzan, nahiz eta medikuek arreta euskaraz eman dezaketean, haien kudeaketa sistema guztia gazteleraz dago. Berdina gertatzen da industriaren alorrean.



OPEL CROSSLAND X

Compacto y dinámico. El Crossover preparado para la ciudad. ¡Ahora puede ser tuyo desde 8€/día!

PATROCINADO POR OPEL

Teknologia, hortaz, beti doa erabilera esparruaren atzetik.

–Bai, erabilerak datuak eta informazioa sortzen ditu. Ahots eta hizkun-tza teknologia adimen artifizialeko teknologia mota bat da, eta, hortaz, dagoen informaziotik ikasten du.

Eta zein teknologia arlotan dago indartsu euskara?

–Azkenengo urtean Eusko Jaurleri-tzak eta baita enpresa batzuk apustua egin dute sare neuronalen garapenean. Euskarazko ahots eta hizkun-tza kudeatzeko eta automatikoki prozesatzeko emaitzak oso onak dira. Batez ere sare neuronalarekin aurrerapausoak eman direlako eta baita beste hizkuntzetarako egiten diren baliabideak eta teknologiak baliagarriak direlako euskararentzat ere bai.

Beste hizkuntza batzuetan erabiltzen diren tekniken egitura berbera erabili daiteke euskarazko ahots eta hizkuntza teknologia garatzeko?

–Bai, adibidez adimen artifizialarekin eta sare neuronalarekin egon diren aurrerapausoak (datuak prozesatzeko zerbitzariak, algoritmoak, interfazeak€) hizkuntzaren independenteak dira eta ahots eta hizkuntza teknologiak euskararentzako garatu ahal izatea ahalbidetzen dute. Gaur egungo teknika eta algoritmo askok beste hizkun-tzetako datuak ere aprobeztatzeko dituzte hizkuntzaren modelo generiko bat edukitzeko. Kasu horietan, ingeleseko datuak ustiatuta eta euskarazko datu gutxi batzuekin oso emaitza onak lortu ditzakegu.



OPEL CROSSLAND X

Compacto y dinámico. El Crossover preparado para la ciudad. ¡Ahora puede ser tuyo desde 8€/día!

PATROCINADO POR OPEL

Eta nola eragin dezakete euskalki eta hizkera ezberdinek?

–Euskalkiak beste hizkuntzek ez duten erroka bat dira. Lurrealde txikia eta hizlari kopuru urria izanik hitz egiteko modu asko daude. Latinoamerikan, normalean, teknologien garapenak lurralde bakoitzeko gaztelera, Argentinakoa edo Mexikokoa esaterako, hizkuntza ezberdin bat bezala tratatzen du. Euskararentzako hori egin behar badugu erroka handia dugu aurretik. Gainera, euskalkien-tzako egon daitezkeen datuak gutxitu egiten dira, dauden datu gehienak batuerarako baitira.



para detectar el origen del brote

Noticias de Sociedad

Día Internacional de la Eficiencia Energética



"Llamémosle transición, pero es una revolución: o damos un cambio radical en nuestro consumo energético, o habremos perdido el tren de este proceso"

Los fondos europeos se presentan como un último impulso para que Gipuzkoa avance hacia un modelo...

La necesidad de reducir el consumo energético

Gipuzkoa impulsa las cooperativas ciudadanas para generar energía solar

Y tú, ¿eres 'Gutxigasta'?, campaña del EVE para impulsar el compromiso con el ahorro de energía

Noticias de Eficiencia energética

Interesik jartzen dute adimen artifiziala lantzen duten enpresek euskararengan?

– Bai, enpresa bakoitzak daukan merkatuaren arabera jartzen du interesa. Zerbitzu linguistikokoak eskaintzen dituzten enpresek, Euskal Herrian, euskara oso kontuan izaten dute. Baina gaur egun adimen artifizialeko zerbitzuak eta produktu gehienak Estatu Batuetako erraldoi teknologikoen eskaintzen dituzte: Google, Facebook, Amazon, Microsoft. Beraien zerbitzari eta zerbitzuetan oso erraz daukate teknologia edozeinentzako eskuragarri jartzea baina euskara ez dago.

Interesik erakutsi ez dutelako?

– Erraldoi teknologiko hauetako ba-tzuekin izan ditugun hurbilketetan esaten digute garapen guztiak Estatu Batuetan zentralizatuta dituztela eta euskarak daukan merkatua kontuan izanik beraien lehentasunak beste ba-tzuk direla. Erraldoi teknologiko horien zerbitzuetan edo teknologiaren eskaintza euskara txerta-tzea merkatu erronka bat da.

Zein onura ekarriko lioke euskarari adimen artifiziala erabiltzen duten gailuetan presentzia handiago izateak?

– Alde batetik, euskararen erabilerari onura handiak ekarriko lizkioke. Gaur egun gazteek arlo akademikoan euskara erabiltzen dute baina sarean, nola euskara ez dagoen aukeratzeko, gaztekeraz egiten dute. Bestetik, gailuek euskararen erabileraren datuak sortuko lituzkete eta horiek ustiatuz gero teknologia hobetuko litzateke.

Hizkuntzaren prozesamenduaren alorrean Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile neuronalak aurrerapen handia izan da.

— Bai, eta hori posible izan da teknologiaren aurrerapausoengatik. Sare neuronalen arkitektura berriak baimendu du hain emaitza onak lortzea euskara eta gaztekeraren artean. Urte askotan zehar egin diren itzulpenen datuak erabili dira algoritmo berri-tzaile hauek elikatzeke.

Itzulpenengintzaz gain, sare neuronalak zein beste alorretan ahalbidetu du aurrepausoak ematea?

– Transkribapenean, esaterako. Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du hiritarrentzat zerbitzu ireki bat jarri, baina gu teknologia hori transferitzen ari gara beste enpresa eta erabiltzaile batzuetara. Adibidez, eduki digitalak, bideoak eta transkribatzeko eta azpigituluak sortzeko automatikoki. Eduki batzuetarako transkribapen horiek oso ondo daude, oso akats gutxi dituzte. Hizketa espontaneoan zailagoa da, baina dokumentalak, legebiltzarrean egoten diren sesioak ba-tzuk transkribatzeko emaitza onak lortzen ari gara.

Gero eta hurbilago al dago euskara Siri bezalako asistenteetan presentzia izateak?

– Ez dago urrun, dagoeneko horrelako asistenteak euskaraz garatzen ari gara. Ahotsaren ezagutzan eta sintesian euskaraz ondo gabiltza, baita testuen ulermenean ere. Dena elkar-tzeko prozesuan ere ari gara. Datorren urteotan ikusi beharko genituzke merkatuan asistente hauek. Baina oraindik zail ikusten dut Siri edo Google Assistantek euskaraz hitz egitea. Horretarako erraldoi teknologikoen akordioaren batera heldu beharko ginateke.

Beste hizkuntzekin alderatuta euskara aurreratuago dagoela diozu. Zerikusia du EHUk eskaintzen duen Hizkuntza Azterketa eta Prozesamendua masterrak?

– Bai, noski, oso lotuta dago. Euskara euskaldunon izaerari lotuta dago eta hemen interes hori betidanik egon da. IXA taldea eta Aholab taldea elkartu dira eta HiTZ zentroa sortu dute. Urte pila bat daramatzate ahots eta hizkuntza teknologiak jorratzen, euskararen inguruan fokua jartzen. Gainera Ixa taldea oso kantera garrantzitsua da teknologia hauetan aurrera egin ahal izateko.

Euskaraldiak enpresa pribatuen aliantza bilatuko du aurten. Garrantzitsua ikusten duzu euskara mundu honetan murgiltzea?

– Bai, Vicomtech-ek aurreko edizioan ere parte hartu zuen eta oraingoan ere parte hartuko dugu. Oso garran-tzitsua da euskara enpresaren mundura eta sektore industrialetara iristea. Lantegietan agian langileek beraien artean euskaraz egiten dute, baina kudeaketa sistemak eta komunikazio ofizialak gehienetan gazteleraz egiten dira. Osasungintzan ere berdin. Euskara esparru horietara eramatea garrantzitsua da, horrek baimenduko digulako datuak sor-tzea.

Arlo horretan lanean zabilzate?

– Orain Eusko Jaurlaritzak finantza-tzen duen ikerketa proiektu oinarritzko batean gaude elkarrizketa eta asistente sistemak fabriketara eramateko langileek makina eta robotekin hitz egin ahal izan dezaten. Osasungintzan, berriz, IXA taldea ari da historio klinikoak euskaraz sortzen. Osakidetzarekin daukate proiektu bat. Hemendik bost edo hamar urtetara espero dugu euskara esparru horietara eramanez ahal izatea.

Más información

Isilik ez... oraingoz.

Kontenedoreak irekitzeko pedala jartzea eskatu du EAJK.

Euskaraldian parte hartzeko deia egin diete, bereziki, belarripreste.

Temas relacionados:

Donostia

Dugu

Erabiltzen

Euskaraz

Idioma Euskera

TAMBIÉN TE PUEDE INTERESAR



¿Sin cartera?

Con la Cuenta NÓMINA solo necesitas una cosa para pagar: tu móvil




Seguro de salud Sanitas

Introduce datos personales y comprueba su precio. Promo desde 28,90 €

Especiales

Lourdes Iriondo ez zegoen konforme


Bihotzeko gaixotasun batek gitarra hartzera bultzatu zuen eta 60ko hamarkadan arrakasta handia...



Gizontasun-eredu berriaren inguruan



"Cada vez somos más las mujeres en cargos de responsabilidad y eso nos proporciona un entorno más favorable"



Elbira Zipitria, klandestinitatetik plazara

Noticias de Especiales

Lo último

1. Ibarra reclama un cribado para atajar la incidencia del coronavirus
2. Elecciones en Madrid o moción de censura: ¿qué dice la ley?
3. Los vecinos de Legorreta irán en masa al cribado para detectar el origen del brote
4. PSOE y Más Madrid intentan frenar los comicios con dos mociones de censura
5. Comienza la vacunación de 147 bomberos forales de Gipuzkoa
6. La pandemia por pueblos: consulta la situación de tu municipio
7. Nacho Monreal sigue al margen en la vuelta al trabajo de la Real
8. Ignacio Aguado: "Es una temeridad y una irresponsabilidad"
9. El coronavirus está en expansión en Gipuzkoa
10. Ayuso rompe con Cs y convoca elecciones

[HOME](#) [Gipuzkoa](#) [Reala](#) [Cultura](#) [Actualidad](#) [Opinión](#) [Deportes](#) [Economía](#) [Vivir ON](#) [Participación](#) [Servicios](#)

noticias de Gipuzkoa

Otras webs de Grupo Noticias

[Deia](#)
[Diario de Noticias](#)
[Diario Noticias de Álava](#)
[Onda Vasca](#)

[Promociones](#)
[Publicidad](#)
[Suscríbete a Noticias de Gipuzkoa](#)

[Suscripción por RSS](#)
[Newsletters](#)
[Auditada por OJD](#)
[Distribución](#)
[Trabajos de impresión](#)



© Diario de Noticias-Edición Digital | Avda. Tolosa 23 20018 DonostiaTel 943 319 200

[Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Mapa web](#) | [Contacto](#) | [Cookies](#) | [Política de Privacidad](#)